KARRANTZA HARANEKO UDALA
Bº Concha, 1 C.P. 48891 Karrantza (Bizkaia)

AYUNTAMIENTO VALLE DE KARRANTZA
Tfno: 946806012 www.karrantza.org

Karrantza ante el reto de la gestión de los purines: una posible solución con control y garantías

Karrantza afronta un debate importante sobre la planta de purines y la obtención de biometano proyectada en Las Torcachas. La preocupación ciudadana es legítima, ya que se trata de una instalación importante en todos los sentidos que puede generar cierto impacto en el territorio, la actividad ganadera y la calidad de vida.

Sin embargo, es necesario **partir de una realidad: el problema de los purines existe desde hace años debido a la actual concentración ganadera del valle y su gestión actual no resulta sostenible.** La planta no crea este problema ni en sí misma es la solución, sino una posible herramienta para ayudar a resolverlo.

La ganadería es un sector tradicional y esencial para el futuro económico y social de Karrantza. Precisamente por ello es **necesario avanzar hacia sistemas más seguros y profesionales de gestión de los residuos ganaderos del Valle, evitando riesgos para los suelos, los ríos y los acuíferos.**

Aunque la Autorización Ambiental Integrada (AAI) corresponde al Gobierno Vasco y el Ayuntamiento no puede paralizar unilateralmente el proyecto, sí tiene la responsabilidad de ejercer un papel activo para garantizar que el desarrollo y funcionamiento de la planta se realicen con las máximas garantías ambientales, económicas y sociales.

La tecnología de digestión anaerobia utilizada en estas instalaciones está ampliamente implantada en todo Europa y desde hace décadas, y puede aportar beneficios como la reducción de emisiones de metano, la producción de energía renovable, una gestión más ordenada de los purines, la recuperación de nutrientes de un modo sostenible y una mayor trazabilidad de los residuos. No obstante, una planta de biometano no es una solución automática y genera productos resultantes. **Su éxito dependerá de cómo se gestione todo el proceso: desde la recogida de los purines hasta el destino final de los productos resultantes.**

Por ello, el Ayuntamiento considera prioritario **controlar de manera independiente las cantidades, composición y destinos de las distintas fracciones generadas** (sólidos, líquidos y sulfato amónico), así como las parcelas donde se apliquen y las cantidades utilizadas tomando también el dato de partida. El objetivo es evitar que una mala gestión posterior anule los beneficios obtenidos durante el tratamiento. Esto mismo se recoge explícitamente en la Autorización Ambiental Integrada (AAI) del Gobierno vasco.

La protección de los acuíferos, aguas subterráneas y ríos constituye una de las principales prioridades. Se contempla establecer una situación de referencia antes de la puesta en marcha de la planta y realizar controles periódicos que permitan evaluar con datos objetivos si la calidad ambiental mejora o empeora con el paso de los años.

Asimismo, la adaptación a sistemas más exigentes no puede recaer únicamente sobre los ganaderos. Será necesario exigir ayudas y apoyo técnico para mejorar instalaciones, implantar sistemas adecuados de aplicación y simplificar los trámites administrativos. **La protección ambiental y la viabilidad económica de las explotaciones deben avanzar conjuntamente.**

También deberán vigilarse aspectos que afectan directamente a los vecinos, como los olores y el tráfico. Pese a los sistemas de biofiltros que la empresa tiene obligación de implantar para evitar olores, el Ayuntamiento defenderá controles independientes si fuera necesario, sistemas de gestión de incidencias, protocolos de actuación ante hipotéticos episodios de olores y una regulación adecuada del transporte para minimizar molestias y riesgos.

Ante esta situación, el Ayuntamiento propone una estrategia basada en **seis compromisos: transparencia informativa, exigencia de controles rigurosos, seguimiento continuo de impactos ambientales participando en sus mediciones, participación de todos los agentes implicados, apoyo a la ganadería y garantías de largo plazo sobre la continuidad de las obligaciones ambientales.**

La posición municipal rechaza tanto el triunfalismo que da por resueltos todos los problemas como el alarmismo sin base técnica. La ciudadanía tiene derecho a conocer tanto los beneficios potenciales como los riesgos reales y los resultados de los controles.

En definitiva, Karrantza no debe elegir entre ganadería y medio ambiente. Ambos son compatibles y mutuamente necesarios. La planta puede formar parte de la solución, pero solo si se integra dentro de una estrategia global de gestión de los purines basada en el control, la transparencia, la vigilancia ambiental y la evaluación continua de resultados. El compromiso del Ayuntamiento será informar, exigir, supervisar y defender los intereses de Karrantza durante toda la vida del proyecto.

AYUNTAMIENTO DE KARRANTZA

KARRANTZA HARANEKO UDALA
Bª Concha, 1 C.P. 48891 Karrantza (Bizkaia)

AYUNTAMIENTO VALLE DE KARRANTZA
Tfno: 946806012 www.karrantza.org

Karrantza minda kudeaketzeko erronkaren aurrean: irtenbide posible bat kontrolarekin eta bermeekin

Karrantzak eztabaida garrantzitsu bat du aurrean, Las Torcachasen eraikitzeko asmoa duten minda lantzeko eta biometanoa erauzteko fabrikari buruzkoa. Herritarren kezkak zilegi dira, lurraldean, abeltzaintzan eta bizi-kalitatean eragina izan dezakeen instalazio garrantzitsua baita.

Hala ere, **errealitate batetik abiatu behar dugu: mindaren arazoak urteetan dirau, haranak gaur egun duen abeltzaintza-kontzentrazioarengatik eta egungo kudeaketa bideragarria ez delako.** Fabrikak ez du ez arazo hau sortzen ez berak bakarrik konpontzen ere, baina irtenbidea bilatzeko tresna posible bat da.

Abeltzaintza sektore tradizionala da, ezinbestekoa Karrantzaren etorkizun ekonomiko eta sozialarentzat. Hain zuzen **horrexegatik da beharrezkoa Haraneko abeltzaintza-hondakinak kudeatzeko sistema seguruago eta profesionalagoetara aurrerapausoak egitea eta lurzoruarentzako, errekentzako eta akuiferoentzako arriskuak sahiestea.**

Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) Eusko Jaurlaritzari dagokion eta Udaletxeak bere kasa proiektua geldiarazi ezin duen arren, badu fabrikaren garapena eta funtzionamendua ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-berme handienekin gauzatuko direla bermatzeko eginkizun aktiboa burutzeko ardura.

Instalazio horiek erabiliko duten digestio anaerobioko teknologia Europa osoan asko erabiltzen dute duela hainbat hamarkada eta baditu zenbait onura, hala nola metano isurpenak murriztea, energia berriztagarria ekoiztea, mindaren kudeaketa ordenatuagoa, mantenugaiak modu jasangarrian berreskuratzea eta hondakinen trazabilitatea. Hala ere, biometano fabrika bat ez da irtenbide automatiko bat eta ondorio-produktuak ere sortzen ditu. **Fabrikaren arrakasta prozesu osoaren kudeaketaren baitakoa izango da: minda jasotzetik ondorio-produktuen azken erabileraraino.**

Hori dela eta, **Udalak lehentasunezkoa dela deritzo modu independentean kontrolatzea sortutako frakzioen** (solidoak, likidoak eta amonio sulfatoa) kantitate, osaera eta erabilerak, bai eta erabiliko diren lursailak eta kantitateak ere, partida-datua ere kontuan izanik. Gerora erabilera txarra emateak tratamenduan zehar lortutako onurak deuseztatzea ekiditea da helburua. Hori bera esplizituki ezartzen du Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Baimen Bateratuan (IBB).

Akuiferoak, lurrazpiko urak eta errekak babestea lehentasun handienetako bat da. Fabrika martxan jarri aurretik erreferentzia-egoera bat eta urteen poderioz ingurumenaren kalitateak hobera edo okerrera egingo duen datu objektiboekin ebaluatu ahal izateko aldizkako kontrolak ezartzeko aukera aztertzen ari gara.

Halaber, sistema exijenteagoetara egokitzeak ezin du soilik abeltzainen lana izan. Beharrezkoa izango da dirulaguntzak eta laguntza teknikoa eskatzea instalazioak hobetzeko, aplikazio-sistema egokiak ezartzeko eta izapide administratiboak errazteko. **Ingurumenaren babesak eta ustiaketaren bideragarritasun ekonomikoak batera egin behar dute aurrera.**

Biztanleei zuzenean eragiten dieten alderdiak ere zaindu beharko dira, hala nola kiratsa eta trafikoa. Kiratsa ekiditeko enpresa jartzera behartuta dagoen biofiltro sistemak izan arren, Udalak, beharrezkoak balira, kontrol independenteak, gorabeherak kudeatzeko sistemak, balizko kirats-arazoei aurre egiteko jarduera-protokoloak eta eragozpenak eta arriskuak minimizatzeko garraio-arauketa egokiak babestuko lituzke.

Egoera honen aurrean, Udalak estrategia bat proposatzen du, **sei konpromisotan oinarritua: informazio-gardentasuna, kontrol zorrotzak eskatzea, ingurumen-eraginaren etengabeko jarraipena egitea neurketetan parte hartuz, tartean dauden eragile guztien parte-hartzea, abeltzaintza laguntzea eta ingurumen-betebeharren jarraitutasunari buruzko epe luzerako bermeak izatea.**

Udalaren jarrerak baztertu egiten ditu bai oinarri teknikorik gabeko alarmismoa bai arazo guztiak konpondutzat ematen dituen triunfalismoa. Herritarrek eskubidea dute bai balizko onuren bai benetako arriskuen eta kontrolen emaitzen berri izateko.

Laburbilduz, Karrantzak ez du abeltzaintza ala ingurumena erabaki behar. Bateragarriak dira biak eta elkarren beharra dute. Fabrika irtenbidearen parte izan daiteke, baina soilik kontrolean, gardentasunean, ingurumenaren zaintzan eta emaitzen ebaluazio jarraituan oinarritutako minda kudeatzeko estrategia orokor baten barruan txertatzen bada. Udalaren konpromisoa informatzea, exijitzea, gainbegiratzea eta Karrantzaren interesak defendatzea izango da proiektuaren bizialdi osoan zehar.

KARRANTZAKO UDALA